

Donostia, 2019ko urriaren 18a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

DEFENTSA MINISTERIOAK ZORROAGA GAINEAN DITUEN LURSAIL BATZUEN
ENKANTEAREN GAINEKO KONTROLATZEKO MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua hartzen duena aintzakotzat hartu eta Defentsa Ministerioak Zorroagan dituen lursail batzuen enkantearen gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Defentsa Ministerioak bi lursail jarri ditu salgai. Bien artean 30.171 metro koadro egiten dute, Zorroaga gainean daude eta armadak Real Sociedad Hípica Deportiva Militar de San Sebastián delakoaren inguruetan dituen lurren parte dira.

Defentsako Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamendu Institutuak (Inved) joan den asteartean BOEn argitaratutako ebazpenaren arabera, bi finka dira, hiri lurra da bat (18.925 metro koadro eta bizitoki erabilera duena) eta landa lurra beste (11.246 metro koadrokoa), eta bata bestearen ondoan daude, Urumea ibaiaren ezker aldean.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernari eskatzen dio negoziazioa irekitzeko Defentsa Ministerioarekin eta/edo lursail horiek erostea begiratzeko, etxebizitza babestuak egiteko han.

Izpta.: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.